

Herritar ezezagun batzuek, igaro den asteazkenean maiatzak 7an, Gurutzetako Plazako Santander bankoaren kutxazain automatiko baten aurkako eraso bere gain hartu dute. Horrekin batera PSOE eta PNV alderdiek Euskal Herriari "gerra estrategia erabatekoa deklaratu" diotela esan eta "Gazte Asanbladan eta jai-batzordeetan buru-belarri aritu diren" **gazte atxilotuek kale borroka ekintzetan inolako erantzunkizunik ez dutela argi utzi** nahi izan dute.

Hemen dituzue adierazpenak hitzez hitz jasoak:

Errepresioaren gurpil zoroak ez du etenik. Eta etena da, hain zuzen ere, borrokari lotzen zaizkion gazte belaunaldi berriekin lotu nahi dutena. Izan ere, estatu espainoleko Gobernuak kudeatzen duen PSOE alderdiak eta bere esanetara dagoen PNVk gerra estrategia erabatekoa deklaratu dute Euskal Herriari.

Azkenaldian, Etikak batzen ditu herri borondatearen aurka inolako lotsarik gabe jotzeko, eta Etikak batzen dituenik ezin uka: Espainiako batasun santuaren, Ama lurraren txikizidioaren, espekulazio basati eta ustelkeria kirasdunaren, torturaren eta espetxeratzeen etikak batzen baititu, besteak beste. Hori guztia gutxi balitz, moral katoliko, apostoliko eta erromatarrek ere babesten du euren etika. Ez dago zalantza izpirik, 33 urte igaro diren arren, Franco ez da hil. Izena aldatu baino ez du egin. Orain Zapatero, Urkullu, Rubalcaba edo Ertzaintza du izena.

*Errepresioaren bide antzu bezain itsua hautatzean, bete betean okertzen direla esan izan dugu maiz. Bada oraingo honetan, are hanka-sartze larriagoa egin dute Gazte Mugimenduko eta Herri Mugimenduko gazte langile bezain ezagunak bahituz eta, biren kasuan espetxeratuz. Gazte Asanbladan eta jai-batzordeetan buru-belarri aritu diren gazte hauek **EZ DUTE INOLAKO ERANTZUNKIZUNIK** herri borondatearen isla diren ekintzetan.*

*Bukatzeko, PSOE eta PNV buru dituen estrategia anikilatzaileak aurrera segitzen duen heinean, ez dezala inork pentsa gu ere besoak gurutzaturik egongo garenik. Bidean odol eta malko gehiegi gelditu dira etsaiaren aurrean belaunikatu eta amore emateko. Gaur inoiz baino gehiago, **BORROKATZEA MEREZI DU!!***